

Orbel-mordoa



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Kaskarinari deitzeko orbel edo orbel-herriko erabili izan da. Ez zait iduritzen gaur egun inor askok erabiliko duenik, baina indarberritu genezake. Zergatik ez “orbel-herriko” deitu ia herriero kale eta parkeetako zuhaitzak hostoa bota eta orbeldu baino lehenago mugarrotu edo ia enborretik mozten dituztenei. Horiek baino kaskarinago gutxi ezagutuko dituzu... Hostoa orbeldu baino lehenago, alajaina. Halako krimenik! Espaloi eta bideetan orbela ez izateagatik, garbizalekeriagatik. Orbela ez biltzeagatik... Txartxo!

Makina bat orbel bildu izan da gure txaretako eta basoetako orbeldietan eta orbeltzatan haizeak pilatutako hostaila iharra. Baita gaztainadietako (*Castanea sativa*) eta tankera bereko zuhaitzi soilago edo sareagoetako ere. Lizardik ederki adierazi zuen horietako belarren negua bere *Biotz-begietan*: “Zelaiek, orbelpean, ametsetan orril”.

Gurdika galantak jaitsiko zituzten borda eta ukuilu inguruetara. Orbela arina izaki, eta joan-etorri behingoan ahalik eta gehien garraiatzea komeni. Arraketa edo palka, arrataula edo burtola,



DAVID GOEHRING-CC BY

ederki kartolatuko ziren kurtetxeak eta organetxeak ahalik eta orbeltza handienak etxeratzeko. Orduan osatuko zituzten orbel metak bezalakorik ez dut inoiz ezagutu. Non edo han, bai, orbel pilaren bat, baina metarik, meta esaten zaionik ez. Belar ondiaz ere hala esaten dugu guk: “Edozein belar pila ez da meta”.

Juan Martin Elexpuruk *Bergara aldeko hiztegia*-n jasoa du nekazarien artearen beste adibide eder bat: errekarri hesia jartzen zioten urak bildutako orbela pilatzeko, orbelontzia deitzen

omen dute. Han batutako orbelarekin lurrustela egiten omen zuten gero so-roaren ongarri erabiltzeko.

Izan ere, zertarako hainbeste lan hartu? Balio handiko lehengaia behar zuen izan orbelak orgak goraino kartolatze-ko, metak egiteko, erreka hesitzeko... Batez ere azpietarako, simaurra lurtzeko edo zuzenean bera lurrusteldu eta ongarri gisa erabiltzeko. Lehengaia bai, eta ez nolanahikoa! Balio handikoa. Orbel-mordoa esaten zaio diru-billete pilari. ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Holandatik ekarritako tulipan erraboil batzuk oparitu dizkide. Noiz landatzen dira? Bitartean, nola gorde behar dira?

Mari Paz Martin (Irun)

Kaixo Mari Paz. Tulipanez edo idi-bihotzek (*Tulipa spp*) freskura maite dute. Urteko parte bero eta lehorra, uda eta udazkena, lo igarotzen dute. Lurpeko erraboila udazkenaren erditik aurrera esnatuko da. Erraboilean pilatutako erreserben bizkar emango du lorea. Ondoren lorea zimelduta hostoak luzatuko ditu eta berriro erraboila erreserbaz osatu. Uda lo pasa eta hurrengo udazkenean esnai.



Urtetik urtera gordetzeko, lurtean bertan utzi edo behin hostaia zimeltzen denean, uda hasieran, lurpetik atera eta ondo lehortu ondoren ontzi batean jaso, toki fresko, ilun eta lehor batean.